

UDAL ESKOLA KONTSEILUAREN BATZORDE IRAKUNKORRAK 2012ko IRAILAREN 27an IZANDA- KO BATZARRARI DAGOKION AKTA.-

Batzarreratuak:

- Iñaki Gorroño (Hezkuntza Arloko Zinegotzia).
- Berritzeguneko Euskara Teknikaria
- Aita Villasante Udal Euskaltegiko Zuzendaria
- Gernikako AEK-ko Zuzendaria
- Allende Salazar ikastetxeko ordezkaria
- San Fidel Ikastolako ordezkaria
- Seber Altube Ikastolako ordezkaria
- Barrutia Ikastetxeko ordezkaria
- Mertzedede ikastetxeko ordezkaria
- Gernika Institutuko ordezkaria
- Barrutialde Institutuko ordezkaria
- Helduen Heziketarako Ikastegiko ordezkaria
- Inmigrazio teknikaria (Mankomunitateko ordezkaria)

Idazkaria: Bittor Zarrabeitia (Hizkuntza Normalizaziorako Teknikaria I)

Ezin etorria zuritu du Esperanza Uriarte andreak (Euskara Arloko Zinegotzia)

Hasiera ordua: 10,00

Amaiera ordua: 12,00.



**1.- IRAGAN IKASTURTEAN ETA UDAN IKASLE ETORKINEI
ESKAINITAKO EUSKARAZKO ERREFORTZUAREN
EMAITZAK AZTERTU ETA 2012-2013 IKASTURTERAKO
EGITASMOA ZEHAZTEA.**

Batzordeko idazkariak argitu du balorazioa aurreko ikasturteko ikastaroari dagokiola, udako ikastaroa diru faltagatik ezin izan delako burutu.

Gernikako AEKko ordezkariak egin du 2011-2012 ikasturteko ikastaroaren balorazioa:

- Bi talde aritu izan dira; 20 ikasle hasi eta 3 baja izan ziren.
- Parte-hartzeari dagokionean, gogotsu aritu izan ziren (antzerki egunak izan dira emankorrenak).
- Emaitzei eta helburuei dagokionean, lorpenak hobekuntza mailan (10 ikasleetatik hiruk gehienezko 5 puntu eta beste hiruk 4 puntu) hasiera mailan baino (10 ikasleetatik seik 3 puntu).

Hausnarketa egin ondoren, **hauxe erabaki da:**

1).- Ikasturteko ikastaroari eustea, orain arteko eskemari jarraituz (bi talde -hasiera maila eta hobekuntza maila-, ordutegia, ordu kopurua). Udakoa aurrekontuaren pentsura geratuko da.

2).- Ikastaroa Mertzede ikastetxean garatuko da, 2009-11-05eko bilkuran erabakitakoari jarraituz.

3).- Egutegiari dagokionean, ahal dela aurreratu egingo da, martxoaren azkeneko amaitu ahal izatearren, apiriletik aurrera azterketei begira daudelako ikasleak. Beraz, zerrendak jasotzeko epemuga urriaren 11rako finkatu da.

4).- Zerrendak betetzeko, zentro bakoitzak ikasle bakoitzari buruzko fitxan hurrengo datuak zehaztea: jatorria eta adina, etorritako urtea, ikasketa maila, euskara maila, guraso baten telefonoa (kontrolerako) eta dagokion zentroko arduradunarekin harremanak izateko modua.



2.- GURASOEI EUSKALDUNTZERAKO DOAKIEN ESKAINTZA AZTERTU

Batzordeko idazkariak argitu du batzar honetako deialdiarekin batera bidali zirela zabalkunderako fotokopiak eta, honez gero, banatuta daudela, Euskara Zerbitzuan bertan ere deiak jaso direlako.

AEKko ordezkariak aurreko ikasturteko balorazio orokorra egin du: guztira 42 guraso aritu izan dira (2010-2011 ikasturtean 25 aritu ziren), lau taldetan. Beraz, oso arrakastatsua izan da kanpaina eta azpimarratu egin du gurasoen artean etorkinen portzentajea nabarmena izan dela.

Gogoratu egin da gurasoen fitxak batzeko epemuga finkatuta dagoela urriaren 10erako.

Erabakia:

Gurasoen taldeak eratzeko aurreko ikasturteko dinamikari jarraitu: mailak (euskalduntzea: hasiera eta sakontze mailak), ordutegia (ikasleen eskakizunen arabera jokatuko da), saioak (ordu eta erdiko bi saio astean), iraupena (urrian hasi eta maiatzean bukatu).

3.- ESKOLAZ-KANPOKO KULTUR EKINTZETARAKO DIRU LAGUNTZAK: 2012-2013 IKASTURTERAKO IRIZPIDEAK FINKATZEA

Batzordeko idazkariak aurreko ikasturteko irizpideen berri eman du eta batzarreratuek hauxe erabaki dute:

1).- Eskolaz-kanpoko kultur ekintzetarako diru laguntzak banatzeko, aurreko ikasturtean erabilitako irizpideekin jarraitzea 2013ko aurrekontuak horretarako aukera emanez gero:



a).- Kultur ekintzetarako burutzen den kopuru orokorrari dagokionean, zentro guztiei gutxieneko 400 eurokoa ematea eta gainerakoa zentro bakoitzeko ikasle kopuruaren arabera banatzea.

b).- Eskola Kontseiluaren Batzordetik koordinatzen diren ekintzak direla-eta (antzerki astea, abesbatzen kontzertuak, dantzari eguna, idazlan koadernoak), zentro bakoitzari parte hartzen duen ekintza bakoitzeko kopuru finko bat ematea (aurreko ikasturtean 500 euro izan ziren; dantzarako 2.300 €).

3).- Beti ere, hurrengo batzar batean eskolaz-kanpoko ekintzak (antzerkia, idazlan koadernoak, dantza) hausnartuko direnez, han erabaki daitekeenaren pentsura geratzen da honakoa.

2).- Bestalde, 2013ko aurrekontuan murrizketak izateagatik irizpide horiek betetzea eragotziko balitz, hurrengo batzar bat egingo da banaketa irizpideak berraztertze.

4.- ZENTROETAKO “EUSKARAREN NORMALKUNTZARAKO PLANAK” GARATZEARREN 2011-2012 IKASTURTEKO DIRU LAGUNTZAK EMATEKO ARAUDIA ONARTZEA.

Batzordeko idazkariak, aldez aurretik, Euskara Batzordeak 2012ko aurrekontuaren egokipenerako egindako bi batzarren berri eman du (akta horien berri eman zitzairen batzordekideei, irakaskuntza zentroak barru) eta, aurrekontuaren murrizketak bitarteko, Normalkuntza Planetarako aurreikusitako 20.000 €ko partida 15.000 €ra jaistea erabaki zela; ekintza eta partida batzuk kendu egin behar izan ziren eta honako diru laguntzena mantentzeko ahalegin berezia egin zen.

Erabakia:

1).-Indarrean dagoen araudiari eustea, 2010-2011 ikasturterako erabaki ziren egokipenak barru (5. klausula: familia transmisioaren atalari lehentasuna eman).



2).- Diru laguntza deialdia egingo da eta eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, jakinarazpena jasotzen denetik zenbatuta.

3).- Diru kopuru orokorra 15.000 €koa izango da. Beraz, araudiaren bosgarren araua honela geratuko da:

a).- 1.000 € gutxienekoa, zentro bakoitzari.

b).- 5.000 €ikasle kopuruaren arabera banatzekoa.

c).- Gainerakoa (kopuru orokorrera artekoa) egitasmoen balorazioaren arabera banatzekoa (seigarren arauari jarraiki).

5.- UDALETIK ESKOLA MUNDURAKO DAUDEN KANPAINA ETA ZERBITZUEN BERRI EMATEA ETA GAINERAKO INFORMAZIO INTERESGARRIA.

Deialdiarekin bidalitako eranskinak aztertu dira, hurrengoak azpimarratuz:

a).- EUSKARAZKO PRODUKTUEN KATALAGOA.- Batzordeko Idazkariak azalpenak eman ditu; 2012ko Euskarazko Produktuen Katalogoaren zabalkunderako kanpaina iazkoaren parekoa izango ei da eta zentroetan fotokopiak banatzeko bidaliko direla. Aurten ere, Euskara Sailaren asmoa jostailu saltokiekin harremanak landu eta kanpaina berezia burutzeta da. Katalogoa bera ez da banatuko, baina bai egingo da zabalkundea internet bidez bertara jotzeko.

Erabakia:

Euskarazko Produktuen katalogoari buruzko informazioa LH eta DBHko ikasle guztiei banatuko zaie (orri berezia), ploter bereziak jarriko dira jostailu dendetan eta euskarazko produktuetan %5eko deskontua izango da kanpainako saltokietan.

b).- EUSKARA ZINE ARETOETARA.- Batzordeko Idazkariak Tinko Elkartearen eta Irudi Biziak enpresaren eskaintzen berri eman du.

Gernika Institutuko ordezkariak galdetu du ea argi dagoen zinera joan eta lortu nahi den helburua zein den eta helburuak lortzen diren, zeren



jendearen portaera arazoa izaten da askotan, batik bat DBHko ikasleen kasuan. Uste du zentro guztien arazoa dela. Bestalde, zinea euskaraz programa horrekin bat egiteko beste modu batzuk ere badaudela uste du, DVD eta gainerako baliabideak zentroan bertan edukiz gero.

Mertzedede ikastetxeko ordezkariak aipatu du ikastetxe bakoitzak arazo hori ondo aztertu behar duela zinera joan orduko eta joan ostean.

Allende Salazar ikastetxeko ordezkariak uste du garrantzitsua dela ekintza komunak mantentzea eta zentro desberdinetako ikasleak batzea, zinean ere bai.

Berritzeguneko teknikariak dio oso desberdina dela LHkoak edo DBHkoak izan eta uste du irakasle guztiek jokabide berdina izan dezaten gehiago landu beharko litzatekeela gaia.

Erabakia:

“Zinea euskaraz” programa garatzeko, bi aukera emango dira, zentro bakoitzak erabakiko duelarik ikasleen tipologia edo mailaren arabera:

- Zentroan bertan antolatzea, DVDak, gela berezia eta tresneria aproposa balego.
- Lizeo antzokian eskainiko diren filmetara joatea (Tinko eta Irudia Biziak enpresen eskaintzak).

c).- GAZTEZULO ALDIZKARIAREN PROPOSAMENA.- Aurreko ikasturtean izandako esperientziari buruzko txostenaren emaitzak aztertu dira eta oso positibotzat jo ere. Euskara Arloak eskaintza hori 2012-2013 ikasturterako errepikatzea erabaki du eta DBHko 4. mailako ikasleei zuzentzea. Hemen ere aurrekontuaren arabera jokatu da (harpidetza sei hilabetekoa edo gutxiagokoa, partidaren arabera).

Erabakia:

1).- Erabakia: Gaztezulo aldizkariak egindako eskaintza ontzat ematea eta DBHko 4. mailakoei zuzentzea.

2).- Egitasmo honi lotuta hurrengo faseak betetzea zentro bakoitzean:



- **Gaztezulo aldizkariko arduradunak zuzenduko dira zentroetara, urrian gutunak gurasoei bideratzeko.**
- **Azarotik apirilera bitartean doan banatuko zaie ikasleei, kasu bakoitzean zentroak finkatu moduan (etxeetara zuzenean edota zentroan bertan). 2013ko aurrekontuaren arabera, harpidetza epea egokitu beharko da.**

3).- Azken fasea, inkesta eta harpidetza sustapena, aldizkariak berak bideratu beharko du bere baliabideekin..

6.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Seber Altubeko ordezkariak planteatu du ez ote den profesionalizatu antzerki jardunaldietakoa eta galdetu ez litzatekeen komeniko sustraietara bueltatzea, antzerki lan xumeagoak eginda.

Ekintzaka egingo den hurrengo batzarrean hausnartuko da gai hori. Hurrengo batzar hori urriaren 16an egitea erabaki da, goizeko 10:00etan hasita.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoenez, amaitutzat jo da batzarra.

Hezkuntza Arloko zinegotzia

Batzordeko Idazkaria,

Iñaki Gorroño

Bittor Zarrabeitia

